

2022-2023 IKASTURTEAN UNIBERTSITATE-BEKA IZATEKO ESKATUTAKO GUTXIENEO KREDITUEI BURUZKO INFORMAZIOA (24. eta 25. artikulua)

BEKARAKO ZENBATZEN DIREN ETA ORDAINTZEN DIREN KREDITUAK	BEKARAKO ZENBATZEN DITUZTEN BAINA ORDAINTZEN EZ DIREN KREDITUAK	GUTXIENEO KONTUAN HARTZEN EZ DIREN KREDITUAK ETA ORDAINTZEN EZ DIRENAK
1. eta 2. matrikuletako kredituak Gradu/mastererako beharrezko prestakuntza-osagarriak	3. eta 4. matrikuletako kredituak	Espezialitate bat baino gehiagoko irakasgai edo kredituak, ezta dagokion titulua eskuratzeko behar diren kopurutik gorakoak
		Ikasturtean zehar amortizatuko diren hautazko irakasgaiei dagozkien kredituak
		Baliozkotu, egokitu edo aitortu diren kredituak

IKASKETA MOTAK	BEKARAKO ESKATUTAKO KREDITUEN GUTXIENEOA	ESKATUTAKO KREDITUEN GUTXIENEOAREN SALBUESPENAK	ERAGINA OSAGAIETAN ETA KOBRATU BEHARREKO ZENBATEKOETAN
GRADUA EDO GOI-MAILAKO IKASKETAK	60 kreditu	Unibertsitateko araudia: kreditu posible guztietan matrikulatzen da, unibertsitatearen araudiak matrikula daitekeen kreditu kopurua mugatzen duelako (unibertsitateak ziurtatu beharko du). Ez da salbuespen hori aplikatuko nahitaezko edo hautazko kredituak matrikulatzeko aukera bada.	12 kredituko edo gutxiagoko matrikula: matrikularen osagaia baino ez dagokio. 12 kreditutik gorako eta 45 kreditu arteko matrikula: bekaren osagaien zenbatekoa % 50 murriztuko da, matrikularen osagaia izan ezik, oso-osorik ordainduko baita. 45 kreditutik gorako matrikula: dagozkion osagai guztien % 100 jasoko da.
		Azken kredituak: ikasketak amaitzeko geratzen zaizkion kreditu guztietan matrikulatzen da, ikasturtean amortizatuko dituen hautazko kredituak (oraindik amortizatuta ez badaude ere) edo gradu amaierako lana izan ezik.	
		Ikasketa erdipresentzialak /on line: gutxienez 30 kreditu	
		Matrikula partziala: gutxienez 30 kreditu <ul style="list-style-type: none"> Ikasketak eta lan-jarduera bateragarri egiten ditu (lan-kontratuarekin justifikatu) Curriculumeko kanpoko praktiketako kredituak baliozkotzen edo aitortzen zaizkio (ikasketa-planean nahitaezkoak), eta horregatik ezin da 60 kreditutan matrikulatu. Kredituak baliozkotzen edo aitortzen zaizkio, Lanbide Heziketatik datorrelako. 	
URTE BATEKO MASTERRA	Kurtso osoa	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateko araudiak edo ikasketa-planak kreditu-kopuru txikiagoa aurreikusten du urte horretarako, betiere gutxienez 30 kredituko matrikula egiten bada. Masterrean sartutako kredituren bat baliozkotu edo aitortu zaio, betiere matrikulatutako gutxienekoa 30 kreditutik gorakoa bada. 	
2 URTEKO MASTERRA	1. urtea: 60 kreditu 2. urtea: gainerakoa	Masterra amaitzeko geratzen zaizkion kreditu guztietan matrikulatzen da	
IKASKETA GUZTIAK		Eskatzaileak desgaitasuna = > % 65 du: irakastorduak % 50eraino murriztu ditzake	Kredituen % 100ean matrikulatzen bada, osagaien zenbatekoak bikoiztu egingo dira.

